

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Mugarriak
finkatuko dituzte /08

INAUTERIAK

Mozorrotutako tabernen
lehiaketa /09

LEINTZ GATZAGA

510 urte
Gipuzkoan sartu zela /10

ARETXABALETAKO

Udaletxe Zaharra



LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK GERTU DAUKA EGITARAUUA

KONTZERTUAK, DIAPOSITIBA EMANALDIAK
ETA HITZALDIAK IZANGO DITUGU

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 14
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 15
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 12:30ean.

OHARRAK

CURTISERA MARTXA

Curtisera martxa antolatu dute Kepa Urria euskal pre-soari elkartasuna adierazteko, haren urtebetetze egunean. Gaur, hilak 13, irtengo dira, Azbe lantegi paretik, 23:00etan.

SANTA AGEDA MUTILAK

Aratuste-domekara bitartean, domekero egingo dute dantzan Santa Ageda mutilek, plazan, 19:00etan.

EUSKAL HERRIKO HISTORIAREN GAINEKO HITZALDIA

Datorren egunean, hilak 19, Nabarralde elkarteko Pedro Esarte historialaria etorriko da Kurtzebarri eskolara. *Hego ekialdearen konkista (XII. mendea): Gaztelak Nafarroa garaia bereganatzen du* izango du hizpide, 19:00etan.

ESKI IRTEERA

Murruxiko MEk eski irteera antolatu du Luz Ardidenera martxoaren 6 eta 7rako. Izena emateko Murruxikora jo, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, edo 943 79 93 74 telefono zenbakira deitu.

BASOTXOKO ERRETIRATUAK BENIDORMERA

Basotxo Erretiratuen Elkarteak bidaiari antolatu du Benidormera. Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra izango da bidaiari, eta izena Basotxon bertan eman behar da, 11:00etatik 12:00etara.

LORAMENDIREN AGENDA

ATZERATUTA DIAPOESIA EMANALDIA

Eguenean egotekoa zen dia-poesia emanaldia atzeratu egin dute apirilaren 22ra. Izan ere, egunean, beste hitzaldi bat dago herrian.


KARIDADEKO BENTA

Otsailaren 27an, egubakoitza, Jon Maia bertsolariak osatutako Karidadeko Benta taldeak kontzertua eskainiko du Kurtzebarri eskolan, 22:30ean.

ORAINDELA 100 URTE ARETXABALETAN

Agustindarren elkarteak etorri zen orain 100 urte

Agustindar mojen elkarteak 1904ko otsailaren 9an etorri zen gure herrira Arrasateetik. Otalora bainuetxea erosi zuten, lursail eta guzti, eta 75 mila pezeta ordaindu zuten. 16 moja etorri ziren guztira, gehienak arrasatearrak. 1957an, bestalde, neska-mutikoei eskolak ematen hasi ziren.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Kiribista"

Bi borobileko korapiloa, zapatei egiten zaiena.
— Erroseta.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA



GARMENDIA ETA ZALDUN BELTZA

Kirmen Uribe eta Mikel Valverde
Elkar, 2003
92 orrialde

Garmendia Mendebal Urruneko pistolariarik ezagunena izan zen. Artzain joan zen Kaliforniara, baina hilketa bat egotzi zioten eta handik aurrera ihesean ibili behar izan zuen. Garmendia pistolariaren lehen liburua da; bertan, umore handiz kontatzen zaizkigu pertsonaia xeblere honen abenturak.

Kirmen Uribe poetak orain haur literaturari heldu dio, eta pertsonaia bikaina sortu du abenturaz eta umorez betetako kontakizunean. Valverderen marrazkiak ederrak dira.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Anne Paul
12an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen eta Danelen partetik.



ESKORIATZA
Josu Alegria
13an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA
Manoli Martin
14an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Pilar Arrese
15ean. Zorionak eta urte askotarako, loba guztien partetik.



ESKORIATZA
Alberto Axpe
15ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Ramon Urzelai
16an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitor San Miguel
19an, 15 urte. Zorionak, etxekoen eta Aretxabale-tako lagunaren partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karmetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67


BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Markoztatzea



Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

PAGALDAI

Opari denda Burrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

ATREBENTZIAEZPADA/ Badakitzu Durana kale erdittik tranbia pasauko dala? Ze pentsetan jatzu?




NEKANE QUINTAS
Langillie



MANOLO URTUBI
Langillie



KARMELE UNZUETA
Jubilaue



EDORTA ANTIXIA
Langillie



MILA ARAKAMA
Jubilaue



JOSU MENDIETA
Langillie

Bai, aspaldittik dakit, eta asko gustetan jat ideia. Automobillek kendu daixela eskaketan dot, eta garraio publikue bultzetu. Tranbia proiektu politte dala uste dot.

Ezin dot siñistu, bai? Durana kale erdittik pasauko dala? Eta ze pasauko da zirku-laziñue? Ez dot uste herri erdiko kalie leku egokixena danik, egongo die beste ibilbide batzuk.

Bai, e? Ez jat ba ondo pentsetan. Kalie ixten duskuenien umiekin ibiltteko askatasun haundixe daukogu oin, eta gero? Beste bide bat asmau biherko leuki tranbiandako.

Ez, ez nekixen Duranatik pasauko zanik. Ondo pentsetan jat beste garraibide bat jartie, baiñe Durana alde zaharra da, eta hamendik pasetie... Trenbidie iguel leku egokixae da.

Duranatik? Hamendik pasetie baiño hobeto beste bide batzuk topetie. Oiñezkueñdako jarritte daukou Durana, beste herri batzuetan moduen, eta beste ibilbide bat topau daixela.

Bai, banekixen, eta zirku-laziñueñdako eta herrittarrrendako arazorik ez badau sortzen, ondo pentsetan jat. Hamar miñuturo pasauko dala? Hori astokerixa xamarran pentsetan jat.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK NESKA BATZUK GELDI Santa Ageda egunean egin dute aurten lehen aldiz dantzan Santa Ageda mutilek. Baten bat jausi egin zen, baina bestelakoan txukun jardun zuten. Neskak ateratzeko orduan larri antzean ibili ziren. Zelakoak atera, gainera, dantzan ez zekitenak. Ez hori bakarrik: dantza plantak egiteko interesik ere ez zuten jarri batzuek, eta geldi-geldi egon ziren. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Gazteak lokal eskean

Egonlekua gura dute herriko gazte koadrilek. Gazte-xtea izan daiteke edo bestela lokal batzuk.

ASTEAN BEHIN /05

Loramendi Eeren egitaraua

Ikuskizun dotorez betetako egitaraua kalera-tu du hurrengo hilabeteetarako Loramendi EEk.

KIROLAK /06

Ander Arieta-leanizbeaskoa

Argentinako Akonkagua mendian egon berri da, hilabetez, gazte aretxabaletarra.

ASTEKODATUA

19

FAMILIA UGARI DAUDE ARETXABALETAN

Momentu honetan 19 familia ugari daude gure herrian, eta gehienek hiru seme-alaba dituzte. Udalak, iaz bezala, kirol etxeko bazkide kuota erdira jaitea onartu die oraintsu.

BESTEKEKESANA

“ Arrasate Musikalek bi esparru ditu: hezkuntza eta kultura. Herriarekin konpromisoa

daukagu, eta urtean 40 emanaldi inguru eskaintzen ditugu. Arrasate Musikaleko Bandak kontzertuak egiten ditu Santa Zezilian, Gabonetan, Inauterietan eta San Joanetan. Kanpoan ere aritzen da batzuetan.

Ez dakit musika ikasten duten umeak solidarioagoak diren, baina egia da sentimenduak adierazteko gaitasuna handitu dezakeela. Musika ikasleak taldean parte hartzen ikasten du, eta diziplinatua eta ordenatua izan ohi da.

Gure helburuak bi dira: ikasleak ahalik eta ondoen igarotzea eta kultura musikal bat barneratzea. Iaz plan estrategiko bat abian jarri genuen gure eskaintza hobetzeko.

MARTA IZAGIRRE
‘Berria’/04-02-06

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Urtebetetzea!

Azkenaldi honetan gai ugari daukagu iritzia emateko: politikan, Eliza mailan, gizarteko arazoak, emakumeek eta haurrek jasaten duten bortxakeria... Askotan, guregana iristen diren albisteek min ematen digute eta gure ahotsa entzuna izatea nahiko genuke. Baina guzti hau horrela dela ahaztu gabe, gaur beste gertakizun bati buruzko iritzia eman nahiko nuke; gure herriko gertakizun batena, hain zuzen.

Badakit historian zehar ehun urte ez direla asko, baina bizi garenontzat zerbait da. Eta asko edo gutxi izanik bere urratsa uzten du bizitzaren bidean. Urrats horren zati baten testigu herri honetako Agustindarrak dira, oraintxe betetzen hasten baitira ehun urte Arrasate honantz etorri zirela. Mende bat Aretxabaletako herriarekin eta herritarrekin bidea eginez. Nola? Era askotara, baina beti onena deseatzu eta gureak eginez herri honetako pozak, sufrimenak eta egunero-

ko errealitateak, eta hori guztia otoitzera eramanez.

Norbaitek pentsa dezake horretarako ez dela beharrezkoa monasterio baten bizitzea, beste modu batera egin daitekeela hori guztia. Zer esan dezaket? Nik hamahiru urte bakarrik darma- zkit hemen; eta oso pozik, eta

inoiz baino zentzu gehiago aurkitzen diot bizitza estilo honi, gure bizitzarekin inportanteena ez dela edukitzea baizik eta izatea azpimarratu nahi baitugu. Pertsonaren eta gizadiaren balioa aldarrikatu nahi dugu, eta ez merkantilismo hutsa,

argi baitaukagu kreazioa, pertsona barne, Jainkoak sortu duela, eta, beraz, ondo zaindu eta asko maitatu behar dugun gordailuak direla.

Ez dakit oso egokia den norberaz iritzi bat ematea astekari batean, baina berē helburua dauka: ulertu edo ez ulertu gure bizitza, zuetako bakoitza gurekin poztea eta eskerrak ematea Jainkoak herri honetan nahi gaituelako otoitzean, isilean eta zerbitzuan biziaz.

“Mende bat Aretxabaletako herritarrekin bidea eginez. Nola? Era askotara, baina beti onena deseatzu”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Diru kontuek

Ez dakit konturetu zarien baiñe ikastetxietan izena emuteko garaixe da. Nahiko aldrebestute daz, gainera, eskola kontuko urek, hortaz, umiek ez daukogunok ez gara iritzixe emuten hasiko.

Udal aurrekontue, ostera, bai, hori herritar danon asuntue da. Astelehenien aurkeztu biher ei daue osoko bilkuran, eta ikusi egin biher onarketan dauien edo ez. EAJ/EAk sei zinegotzi izenda ez dot uste problemarik izengo dauienik. Aurtengo diru kontuek zelan banatu dittuzten (edo dittuen EAJ/EAk berak egin dau dana-eta) ikusteko jakin guriaz nau; ez dot sorpresarik espero, baiñe ia kultur etxe, zine-areto edo zeozer egitten hasteko dirutxo bat gorde dauien. Datorren astien kontauko duskue kazetarixek zelan fan dan...

GAZTEAK/ Zera diote, gaztetxea itxi zutenetik herrian ez dagoela ezer gazteendako

Gaztetxea edo lokalak gura dituzte herriko hainbat gazte koadrilak

MIRARI ALTUBE

Herriko gazteen egoera salatu gura izan zuen koadrila batek, joan zen astean, komunikabideen aurrean. Zera diote, gaztetxea itxi zutenetik herrian ez dagoela ezer gazteendako, eta Udalari behin eta berriz egin diotela eskaera, baina ez dutela erantzunik jaso.

Gaztetxe barik eta lokal barik nora jo dezakete Aretxabaletako gazteek? Hori da herriko hainbat gazteren kezka, eta horixe ageriarazi gura diote Udalari.

URTEBETE GAZTETXE BARIK

Orain urtebete itxi zuen Udalak gaztetxea, hainbat tira-bira izan eta gero. Orduan, aurreko agintaldiko udalbatza zegoen, eta Anjel Bergaretxeren aginduz itxi zuten. Apirilean, ostera, gazte-lekua zabaldu zuen 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako, baina ez zen gazteen gustuko ekimena izan. Hori horrela, Aretxabaletako gazteek ez daukate inolako egonlekurik herrian, eta taberna zuloetan sartu beste aukerarik ez zaie geratzen; hori dio, behintzat, koadrila batek.

UDALARI HAINBAT ESKAERA

Egoera hori ikusita, behin baino gehiagotan jo du gazte koadrila horrek Aretxabaletako Udaleko ordezkariengana. Azken aldiz, idatziz aurkeztu zuten euren eskaera, baina ez dute inolako erantzunik jaso.

Jon Campo da herriko gazteen egoerarekin kezkatuta dagoen



Gazte koadrila batek komunikabideen aurrean salatu zuen herriko gazteen egoera.

bat. Haren esanetan, alkatea GOITBko *Herriz herri* saioan agertu zenean beste herri batzuetako gaztetxeak ikusiko zituela esan ei zuen: "Esan bai zerbait egingo zuela, baina ez dut uste ezer egin duenik; herrian, behintzat, lehengo egoeran gaude". Gazteok oso argi daukate zer gura duten: "Gazteok egon gaitzkeen lekua gura dugu, elkar-

tzeko tokiren bat; gaztetxea izan daiteke edo beste lokalen batzuk", dio Jonek.

Gazte koadrila bat ausartu bada ere komunikabide aurrean berba egitera, euren esanetan gazte askoren eskaera da. Udaleko ordezkariak orain arte kasurik egin ez dietela ikusita, gainera, eserialdia egingo dute gaur, 18:00etan, udaletxe aurrean.

LABUR

Salgai daude Aretxabaletaren gaineko bideoak

Aretxabaletako Udalak Aretxabaletaren gaineko bideoa egiteko agindu zuen. Orain hilabete aurkeztu zuten, eta ordutik salgai dago kultura etxean, ludotekan eta kirol etxean, 6 euroren truke.

Euskal Herriko historiaren gaineko beste hitzaldi bat

Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi zikloa egiten dabilza Kurtzebarri eskolan. Hori horrela, datorren egue-nean, hilak 19, Nabarralde elkarteko Pedro Esarte historialaria etorriko da. *Hego ekialdearen konkista: Gaztelak Nafarroa garaia bereganatzen du* izango du hizpide Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.

Xabier Sarasua Kongresurako hautagaia izango da

Xabier Sarasua, Aretxabaletako Udaleko kultura eta euskara zinegotzia, Espainiako Kongresurako hautagaia izango da martxoko hauteskundeetan. Aralar-Zutik koalizioako Gipuzkoako zerrendaburua izango da Xabier. Senaturako zerrendaburua, bestalde, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txi-lardegi* izango da.

BENGOA URDAITEGIA
Bertako okelak eta mortzilak
Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Iber
★ Loteria ★
✻ Paper denda ✻
✻ Liburuak ✻
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Aretz taberna
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Maritxu drogeria mertzeria
Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Lie
LURRINDEGIA OPARI DENDA
Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

LEIBAR arrandegia
Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33
Mitarte kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

MAPFRE Aseguroak
Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Jauregi Okindegia
Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

PIENSO SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

EUSKARA/ Karidadeko Benta taldeak kontzertua eskainiko du hilabete bukaeran

Egitarau interesgarria kaleratu du Loramendi EEk datozen asteetarako

M.A.

Loramendi Euskara Elkarteak gertu dauka datozen hilabeteotarako egitaraua. Diapositiba emanaldiak eta kontzertuak izango ditugu nagusi, tartean, Jon Maia bertsolariak osatu duen Karidadeko Benta taldearen kontzertua. Hortaz, aretxabaletarrok badaukagu zer ikusi.

Atzo, eguena, izan zen Loramendi EEk antolatutako lehenengo ekitaldia. Hainbat herritar batu ziren Agurtzane Ugalde arrasatearrak Tibetean izan zuen abenturaren berri jasotzeko.

HITZALDIAK ETA KONTZERTUAK

Hitzaldiak eta kontzertuak dira nagusi egitarau berrian. Haste-ko, zuzenketatxo bat egin behar-ean gaude; izan ere, datorren aste-ko ekitaldia, hau da, poesia-ekin lagundutako diapositiba emanaldia atzeratu egin dute apirilaren 22ra.

Hileko azken egubakoitzean, otsailaren 27an, hain zuzen, Karidadeko Benta taldearen kontzertu bikaina izango dugu. Jon Maia bertsolaria da taldeko ahotsa, eta bertsoak eta munduko doinuak oinarri hartuta abesti bikainak



ARTXIBOA

Ekitaldi ugari eta ezberdinak dituen egitaraua antolatzen du urtero Loramendi EEk.

egin dituzte. Tradizioa eta modernitatea bat egin duen taldea da, eta bat-batekoa izatea du gustuko taldeak; izan ere, kantaria jende artean sartzen da, eta ikusten duenari kantatzen dio.

Martxoari, ostera, Alizia Sturzeren hitzaldiak emango dio hasiera. Hilaren 11n izango da, eta

Euskal Herriko historian emakumeek izan duten garrantziaren gainean egingo du berba: gizarte matriarkala, sorginak... Hil bukeran beste kontzertu bat izango dugu, Amaraun taldeak eskainiko duena, eta apirilean Gemes estetika zentroaren bitartez makillaje ikastaroa emango dute.

LABUR

Antzerki astea egingo dute Kurtzebarri eskolako ikasleek astelehenean hasita

Urtero antolatzen dute Kurtzebarri eskolan antzerki astea, eta aurtent, astelehenean hasi eta egubakoitza bitartean egingo dute. Antzerkia, txotxongiloa eta beste koreografia batzuk landu, eta egunero bi saio egingo dituzte: lehenengoa 15:00etan bertako ikasleendako eta bigarrena 18:00etan guraso eta gainerako herritarrendako.

Kurtzebarri eskolak, bestalde, bilera informatiboa egingo du martitzenean, hilak 17, matrikula kanpaina dela-eta. Eskolaren hezkuntza eta ezaugarri nagusiak azalduko dituzte. 18:00etan euskaraz izango da, eta 19:00etan gazteleraz.

'Asteleheneko Goienkaria' aurkeztu zuten atzo Goienako arduradunek herritarren aurrean

Atzo, eguena, *Asteleheneko Goienkaria* aurkeztu zuten Aretxabaletan. Arritxu Oliden alkatea, Nuria Agirre Loramendi EEko presidentea eta Inazio Arregi Goiena Komunikazio Zerbitzuetako zuzendaria izan ziren aurkezpen ekitaldian. Goienaren sorreraren inguruan egin zuen berba Inazio, eta gaur egun zenbat esparrutan egiten duen lan azaldu zuen. Nuria Agirrek, bestalde, euskara elkartearen ikuspegia agertu zuen. Ekitaldia bukatzeko, Goienaren gaineko bideoa eman zuten. Gogoratu datorren astelehenean bertan kaleratuko dutela lehenengo zenbakia.

Udal aurrekontua aurkeztuko dute datorren asteleheneko ezohiko osoko bilkuran

Ezohiko osoko bilkura egingo du astelehenean, 18:30ean, Aretxabaleako udalbatzak. 2004ko udal aurrekontua aurkeztuko dute bertan. Horrez gainera, beste hiru gai ere izango dituzte eztabaidatzeko. Batetik, datorren martxoaren 14an hauteskunde mahaian egon beharko duten herritarrak hautatuko dituzte; bestetik, etxebizitza sozialak egiteko Eusko Jaurlaritzari lursail bat ematea aztertuko dute; eta bukatzeko, Udaleko lanpostuen zerrenda berrikusiko dute, urtero moduan.

PAUSOKA HAUR ESKOLA

2004-2005 ikasturterako izena emateko epea zabalik

Izenematea: otsailaren 16tik 27ra, 09:00etatik 11:00etara eta 16:30etik 18:00etara

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

TALDE EGOKITUAK

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonaetan, Pazko astean eta uztailaren 23ra arte zabalik.

LOGELA



PAUSOKA HAUR ESKOLA

Euskaraz hazi eta hezi

ANDER ARIETALEANIZBEASKOA/MENDIZALEA

"Ohiko bidetik igo ginen; teknikoki samurrena da baina hotzena ere bai"

M.A.

Argentina Akonkagua menditik etorri berri da Ander. 29 aldiz Akonkaguan izan den Mari Abrego mendizale iruindarrak osatutako taldearekin joan da, eta abentura polita bizi izan du 6.962 metro dituen mendian.

Noiz egon zara Akonkaguan?

Urtarrilaren 7an joan nintzen eta otsailaren 1ean itzuli, hortaz, ia hilabete egin dut. Mari Abrego mendizaleak antolatutako talde batekin joan nintzen; zortzi laguneko taldea ginen.

Akonkaguako tontorreraino iritsi zinen?

Bai. Ipar-mendebaleko ibilbidetik, hau da, ohiko ibilbidetik igo ginen. Teknikoki samurrena da, baina era berean, mendiaren alde hotzena eta haizetsuena da. Orain, uda da Argentinan, eta, tenperatura leunagoak den arren, 6.000 metrotik gora 30 gradu zero azpitik egotea ohiko da. Aurten, gainera, inoiz baino elur gehiago izan dugu; 5.900 metrotik gora granpoiekin ibili behar izan genuen.

Zer egin zenuten hilabetean?

Lehenengo, altuerara moldatu



A.A.

"Altuerara moldatzeko, 100 kilometrorra dagoen Vallecitos haranera joan ginen"

beharra dago, oinarrikoa da hori. Mendizale askok Akonkaguan bertan egiten dute moldatzea, baina

gu 100 kilometrorra zegoen haran baten geratu ginen, Vallecitos haranean, eta 4.000 eta 5.000 metroko mendiak igo genituen. 6.000 metro dituen Cerro el Plata mendia igo gura izan genuen, baina elur ekaizta egin zigun eta ez ginen igo. Guztira zortzi bat egun egin genituen Vallecitosen.

Eta handik Akonkaguara...

Bai. Mendoza hiritik ateratzen dira mendizaleak Akonkaguarantz, eta gertu dagoen Puente de Linca hirian mandoak alokatu genituen kanpamentu nagusira joateko. Handik gora, ostera, geu bakarrik moldatu ginen. Kanpamentu nagusitik tontorreraino lau egun egin genituen; izan ere, batzuek gaizki pasatu zuten altueraren erruz. Zortzitik bostek zapaldu genuen tontorra.

Anekdotarik bai?

Bai. Kontu bitxi bat komentatu gurako nuke. Gu egon ginean, katalan batzuk txakurrarekin joan ziren, eta tontorrera heldutako lehenengo txakurra izan zela esan ei zuten. Ez da egia, ezta gutxiago ere: lehenengo txakurra 1930ean igo zen emakume batekin. Han, gainera, txakur ugari dabilta, eta bertako bat neure aurretik igo zen tontorreraino.

PILOTA

Oso ondo dabilta jokatzen herriko sei pilotariak Udaberri Pilota Txapelketa

Udaberri Pilota Txapelketa aurrera doa, eta Aretxabaletako hiru bikoteak oso ondo dabilta. Aurreko aste bukaerako partiduak irabazi egin zituzten guztiek. Oionek eta Uriartek, hirugarren mailako seniorrek, ez dute partidu bat ere galdu; hortaz, finaleko faseara pasatzeko aukera handia daukate. Asteburu honetan, ostera, Errasti anaiek ez dute partidurik jokatuko.

FUTBOLA

Azken minutuan galdu egin zuten emakumeek, eta laugarren postuan daude Urolaren atzetik

Galdu egin zuten emakumeek joan zen zapatuan. Irabazten hasi ziren aretxabaletarrak, baina berdindu egin zieten lehenengo, eta partidua bukatzeko minutu bat falta zenean bigarren gola sartu zieten Urolakoek. Orain, Urola dago sailkapeneko hirugarren postuan eta UDA/Almen laugarren.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Anaitasuna

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Almen-Kostkas

Ohorezko gazteak.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Beloki

Hirugarren mailako seniorrak

Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

Girizia.-Aretxabaleta

Hirugarren mailako seniorrak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 2 UDA 2

Preferentea.

UDA 3 Zarautz 5

Ohorezko gazteak.

Bergara 2 UDA 1

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 3 Behobia 1

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA/Almen 1 Elgoibar 3

Bigarren mailako kadeteak.

UDA/Almen 1 Aloña 4

Lehenengo mailako infantilak.

Urola 2 UDA/Almen 1
Emakumeen liga.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa

Aretxab. 22-Aurrera 20

Hirugarren mailako seniorrak.

Aurrera 6-Aretxab. 22

Hirugarren mailako seniorrak.

Añorga 6-Aretxab. 22

Lehen mailako seniorrak.

2. Merkealdia

50%

modan eta iraino
kirol-oinetakoetan

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

SPORTLAND ARRASATE
Garibai etorbidea, 2-6
www.forumsport.com

ERRETRATUZAHARRA

Txino dantza egiteko zain koadrila

Aratuste usaina hartzen hasita gaude dagoeneko, eta gertatzen joateko Txino dantza ekarri dugu. Erretratua ez da oso zaharra, 1994. urtekoa, baina Aratuste domekan Txino dantza egiteko ohitura oso aspaldikoa da gure herrian.

Dantza kurioso horren jatorria ez da oso ondo ezagutzen eta hainbat irizti daude. Batzuen ustetan ikazkinak menditik jaisten zirenean sortu zen usadioa. Horregatik janzten dituzte, hain zuzen, lihozko soinekoa eta margotzen dute beltzez aurpegia. Beste batzuen esanetan, ostera, txerriekin zerikusia duen dantza da, txerriari deitzen zitzaiolako txino garai baten.

Antza denez, 1934. urte arte Santa Ageda mutilek egiten zuten Txino dantza. Gero, gerra tartean, desagertuta egon zen, eta 1976. urtean Loramendi Dantza Taldeak berreskuratu zuen. Badirudi Aratuste-martitzenean dantzatzen zutela lehen, eta abestia gazteleraz kantatzen zutela.

Gaur egun, dagoeneko, neskek ere egiten dute dantzan, baina oraintsu



arte -erretratuari begiratu besterik ez dago- mutilek bakarrik egiten zuten. Bi ilaratan jartzen dira dantzan egiteko, eta abesten duten bitartean parekoari soinekoa jaso, bular aldean ukitu eta gona azpia erakusten diote. Hona abestia: *Txin, txin, txin, txin/ mahatsa heldu gabe dago;/ txin, txin,*

txin, txin/ baina helduko da./ Txiribito ta andrea/ joan ziren jatera/ Txiribito haserretu ta bota zuen lapiko.

Erretratuan, goitik behera eta ezkerretik eskumara: Josu Sarasua, Josu Urkia, Aitor Atxaga, Pello Olabe. Bigarren ilaran: Imanol Altube, Jon Ander Loidi, ezezaguna, Xabier

Sarasua, Xabier Etxabe eta aurrean Piti. Lehenengo ilaran: Jon Kepa Zubillaga, atzean Mikel Iturbe, Unai Elkoro, Eneka Guenetxea, Dabid Bereziar eta Koldo Zubillaga.

Argazkia eta informazioa: Learko

KURTZEBARRI ESKOLA
2-12 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI
ESKOLA

KURTZEBARRI BHI
12-16 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI
BHI

2004-2005 ikasturterako matrikula epea zabalik: otsailaren 16tik 27ra



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.

Telefona / Faxe: 943 79 00 49
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net



Telefona / Faxe: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

GOIESKOLA

baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 13a / 155. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Agintaldi honetarako, Eskoriatzako mugarri guztiak finkatu nahi ditu Udalak


ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Herriko mugarri guztiak bere tokian jartzen dabilta azkenaldian. Aurreko agintaldian hasi, eta honetan denak finkatzea da Udalaren asmoa. Horretarako, batzorde bat eratu dute, eta lur-jabeen eta Diputazioaren laguntzarekin herriko mugak finkatzea lortu nahi da.

Azken agintaldian Eskoriatza eta Aretxabaleta arteko mugarriak berrikusten hasi ziren bi herrietako ingurumen zinegotziak. Egin beharreko lana egoera txarrean zeuden mugarriak konpontzea izan zen.

Ustez mugarriek egon beharko luketen tokian ganoraz ipintzeko, Diputazioak esku hartzea erabaki zuen. Horretarako, legeak bi batzorde berezi osatzea eskatzen du, bi herriren arteko kontua delako. Hala, Eskoriatzan, Juan Karlos Bengoa alkateak, Carmelo Lezeta eta Juan Luis Merino zinegotziak, Natalia Arrua aparejadoreak eta Edurne Iturbe idazkariak osatzen dute batzorde hori.

Batzordearen, Diputazioaren eta lur-jabeen artean muga guz-



AINTZANE GARDOKI

Agintaldia amaitu aurretik mugarri guztiak bere tokian egotea gura dute udaletxeko arduradunek.

tiak gainbegiratu behar dira, sinadurak jaso eta akta batean bildu. Udalerrri osoan gauza bera egin gura da. Eskoriatza Aramaioekin mugan egotean, bi probintzia

direnez, Eusko Jaurlaritzak esku hartu beharko du prozesuan.

Arabako Barrundiarekin arazoak izan dituzte, mugak Eskoriatzarantz hurbildu zituztelako.

Eusko Jaurlaritzak lau mugarri toki berrira mugitu behar direla adierazi du. Agintaldi honetarako mugarri guztiak bere tokian egotea espero dute batzordekoek.

Aurreko agintaldian hasi, eta dagoeneko Aretxabaleta eta Eskoriatza artekoak finkatu dituzte

Batzorde bat eratu, lur-jabeekin hitz egin eta sinadurak batuta, akta osatu behar da

Aramaio beste probintzia baten egonik, Eusko Jaurlaritzak hartu beharko du parte



Edukiontzi berriak ikustera gerturatu ziren herrira

Eguaztenean, Mankomunitateko bilera egin zen Eskoriatzan. Dorleta eta San Juan kale artean egindako etxebizitzak egin zirenean, lur azpiko edukiontziak jarri ziren bertan, eta horiek ikustera gerturatu ziren bilera aurretik. Paper, beira, zabor eta plastiko edukiontziak nola dabilta ikusteko aukera izan zuten Debagoieneko udaletako ordezkariak. Gauzak ondo joanez gero, herrian hamar bat gehiago egitea nahiko luketela aipatu du Juan Karlos Bengoa herriko alkateak.

LABUR

Kintoek hainbat kalte eragin dituzte aurtengoan ere

Santa Ageda jaia ospatzeko urtero herriko kintoak kalera irteten dira eskean. Horrela egin zuten aurreko astean ere. Arazorik ez zela egongo uste arren, hainbat kalte eragin dituzte aurtengoan ere: Udaletxeko fokuak apurtuta, zakarrrontzi eta lorontziak beraien tokitik aterata...

Ondorioak konpontzeko neurriak hartuko dituztela esan duten arren, Eskoriatzako Udal ordezkariak oraindik ezer erabaki ez dutela aipatu dute.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi Ikastola-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi Ikastola-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

INAUTERIAK

Hilaren 19an, Urdelardero egunarekin emango zaie hasiera aurtengo inauteriei. 12:00etan, kalejira egin ondoren, txistor jana egingo dute herriko umeek. Arratsaldean dantzaldia izango da, herriko gaztetxoendako. Zapatuan, berriz, herri bazkarian babarrun-jana egingo dute. Bazkalostean, frontoian umeendako zezen txikiak egongo dira eta Luis Ezeiza ikastetxeak antolatuta Koldotxo 60 hamarkadan inauteri festa egingo dute. Trikitilariekin eta Goloka taldearekin mozorroen kalejira egingo dute herritarrek, eta goizalde arte dantzaldia egongo da.

AXTOKIRENAGENDA

PROPOSAMENAK JASO GURAN

Aurtengo kultura ekitaldiak prestatzeko, Axtrokik bazkideen proposamenak jasotzeko; bada, bidaltzeko helbide honetara: Axtroki@topagunea.com.

LEHENENGO ALDIA DA LEHIAKETA ANTOLATZEN DUTELA

Mozorrotutako tabernen lehiaketa antolatu du Udalak Inauterietarako

AINZANE GARDOKI

Ekitaldi ugari antolatu dituzte, Eskoriatzan, datorren astean ospatuko diren Inauterietarako. Esana dugu umeek izango dutela protagonismo handien, baina Inauterietako giroa indartu guran, Eskoriatzako Udalak herriko tabernendako mozorro lehiaketa antolatu du. "Horrelako lehiaketa bat antolatzen dugun lehen aldia da. Azken baten, jaietako giroa alaitzea dugu helburu nagusi. Azkeneko urteotan jendea gaur bezalako mozorrotu izan da. Arratsaldean hasita sortu gura dugu giroa, eta horretan taberne lagun dezaketela uste dugu", esan digu kultura teknikari Arantxa Untzuetak.

TABERNA GUZTIAK

Lehiaketan herriko taberna eta ostalaritzako establezimendu guztiek hartuko dute parte, ez baita izenik eman beharko. "Parte hartu gura ez duenak kultura etxean edo udaletxean jakinarazi beharko du lehiaketatik kanpo gelditu gura duela", esan du Arantxak.

Lehiaketan herriko taberna guztiek hartuko dute parte, ez baita horretarako izenik eman beharko

Irudimena eta originaltasuna hartuko ditu epaimahaiak kontuan sariduna aukeratzeko: "Taberna mozorrotzeko gaia tabernarien esku gelditzen da, euren aukeratu beharko dute zelan mozorrotu gura duten taberna. Tabernaren sarrera eta barrualdea nola dekoratuta dauden hartuko du epaimahaiak kontuan. Horrez gain, zerbitzarien mozorroak eta jartzen duten musika ere hartuko dira kontuan", jakinarazi digu kultura teknikariak.

EPAIMAHAI

Kultura batzordeko kideek eta batzorde horrek aukeratuak dituen beste lagun batzuek osatuko dute



ARTXIBOA

Jaiak giro ederrean pasatzeko aukera eman gura die herritarrei Udalak.

epaimahaia. 250 euroko sari bakarra emango dute antolatzaileek. "Inauteri zapatuan, gauerdian, banatuko dugu saria herriko plazan", amaitu du Arantxak.

Urdelardero eguna ospatuko dute egunearan herriko gazteenek, baina gogoratu, bestalde, ekintza ugari daudela antolatuta Inauteri festetarako.

FOTONOTIZIA



Oinetako kanpaina Arizmendi ikastolan

Oinetako bat, pausu bat lelopean oinetako bilketa egin dute Almen guneko ikasleek. Elkartasuneko Hobekuntza taldeko ikasleek Argentinako Jose C. Paz herriaren egoera ezagutu eta gero, bertako herritarrendako zapatak batzea erabaki zuten. Oñatiko Ainitze batzordearekin elkarlanean bultzatu dute oso erantzun ona izan duen kanpaina. Argentinaren bizi baldintzak zertxobait hobetzeaz gain, jendea sentsibilizatu egin gura dute ikasleok.

LABUR


Kiroldegiko eguzki-plakek ura berotuko dute

Hilaren 11n kiroldegia itxita egon zen egun osoz. Teilatu gainean orain dela hilabete batzuk jarri zituzten eguzki-plakak abian jarri dituzte aste honetan. Bi eratako eguzki-plakak jarri zituzten teilatuan. Argi energia sortzen dute batzuk eta ura berotzeko energia beste batzuk. Argi energia sortzen dutenak hasita daude lehenagotik lanean, baina aste honetatik aurrera, igerilekuko ura berotuko duten plakak energia sortzen hasiko dira. Lan horiek egiteko egon da kiroldegia itxita.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

HERRITARREN NAHIA, GIPUZKOARA SARTZEA, 1494AN BETE ZEN

Jauntxoaren garaia atzean utzi eta bost mende pasatu dira herriak askatasuna lortu zuenetik

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Urtetan Oñatiko jauntxoaren agintaldi maltzuraren mende bizi ondoren, Gatzagako herriak askatasuna lortu zuen duela 510 urte. 1494ko otsailaren 13an ikusi zuten gatzagarrek euren nahia beteta: ordura arteko ermandadetik, Arabakotik, Gipuzkoakora igarotzea, hain zuzen ere.

Gatzagako herriak 510 urte bete ditu Gipuzkoan sartu zela. Hain zuzen ere, 1494ko otsailaren 13an izan zen. Aurretik, denbora luzean Oñatiko kondearen nahia betetz eta herritarren gogoz kontra, Arabako Ermandadeko kide izan ziren gatzagarrek.

Garrantzitsua izan da herria hainbat konturengatik. Antzina Madril eta Irun bitarteko bide ofiziala izen zen Arlabangoa, eta Arabako lautadatik Gipuzkoako kostaldera joan nahi zutenen derrigorrezko igarobidea. Horrez gainera, gatzak ere garrantzia izan du herriaren historian, ospea eta aberastasuna eman dio-eta. Alfonso XI.ak hiri-gutuna eman zion Gatzagari 1331n, baina herriko gatzagak berarentzako gorde zituen, aberastasun eta garrantziaren ondorioz. Zenbait urtera, bere aginduetara fidel aritutako

Oñatiko jauntxoari, Eskoriatza, Aretxabaleta eta herriko gatzagak eman zizkion. Beltran de Gebara gatzagekin konformatu ez, eta herriak izen bera zuela argudiatuz, bertako agintea hartu eta bere aginduetara makurrarazi zituen herritarrek.

Gatzagarrek ez zuten mendekotasun hura asimilatu nahi, eta Gipuzkoako Ermandadeko kide izan nahi zuten arren, jauntxoaren nahia bete zen. Leintz Gatzagak 1331n Tolosan, 1397an Getarian eta 1398an Arrasaten izan ziren batzarretan ordezkariak izan zituen, baina, Gebarako kondea Arabako kongregaziokoa izanik, Gatzaga bertakoa izatea komeni zitzaion, jaurerri konuagatik.

Borrokan jarraitu zuten herritarrek, eta 1451n, Gipuzkoako Ermandadearen laguntzarekin, herriko tokirik garaienean zuen dorrea bota zioten Oñatikoari. Egun gutxirako izan zen arren, herriak horrenbeste desiratzen zuen independentzia lortu zuen. Baina jauntxoak indarrez berreskuratu zuen boterea, eta herritarrek zigorra jaso zuten ekintza harengatik: 25 urtean 4.000 marabedi urteko, hain zuzen ere. Edozelan ere, denbora hori igaro arren, kondeak ankerkeriak egiten jarraitu zuten.



Orain dela 510 urte errege-gutun batek Arabako Ermandadetik irteteko eskubidea eman zion Gatzagako herriari.



ARTXIBOA

Arabarren eta gipuzkoarren lagun, bizirik dagoen herria da egun Gatzaga.

Gatzagarrek ez zuten Arabako Ermandadekoak izan nahi, Gipuzkoakoak baizik

Auzitegietan ere ez zuten arrakastarik izan, justizia kontuetan ere nagusitzen baitzen Oñatiko jauntxoa. Errege Katolikoek, noblezia asaldatzaile eta arriskuaren nahiak apaldu guran, epaileak izendatu zituzten.

Gatzelako Ermandadea antolatuta zuten 1476an, eta Gebarak bere ekintzak azaldu behar izan zituen bertan: herritarren borondatearen kontra Arabari lotuta zergatik jarraitzen zuen, hain zuzen. 1490ean, Oñatiko kondea Valladolideko Errege Kantzelari Epai-

Errege Katolikoek, egoerak irtenbiderik ez zuela ikusita, esku hartzea erabaki zuten

leen aurrera, auzitara, eraman zuten. Urteek igaro behar izan zuten, baina azkenean herritarren desirak bete egin ziren: Oñatiko kondearen agintaldi maltzurarekin amaitu zen erabaki judizialaren bitartez. 1494ko otsailaren 13an, errege-gutun batek Arabako Ermandadetik irteteko eskubidea ematen zion Gatzagari. Bi urte geroago, horrenbeste urtean bilatutakoa lortu zen; izan ere, Tolosan eginiko batzarrean Gipuzkoakoan sartzea onartu zitzaion herriari.

Jauntxokeriatik irtetea lortu eta hainbat eskubide bereganatu zituzten herritarrek

Ermandade berrira sartzeak hainbat ondorio ekarri zituen. Esaterako, herritarrek hiru urtean behin alkate bat aukeratu behar zuten; Gipuzkoako Batzar Nagusietara prokuradore bat bidali, eta abar.

Horrela, jauntxokeriatik irteten eta hainbat eskubide bereganatu zituen herriak; probintziako gainerako herriek gozatzen zituzten pribilegio berak izan zituzten handik aurrera gatzagarrek, eta denbora luzean bilatutako bakea eta elkarbizitza lortu zituzten.

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



**MIRENTXU
TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67


LUIS EZEIZA LHI
2-12 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI BHI
12-16 urte bitartekoentzat



2004-2005 ikasturterako matrikula epea zabalik: otsailaren 16tik 27ra



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kultura batzuk era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefona / Faxe: 943 71 49 38
e-maila: 012065aa@hezkuntza.net

Telefona / Faxe: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



**04-05 ikasturterako
matrikula epea zabalik**

otsailaren 16tik 27ra

**Jose Arana
Udal Haur Eskolan
(0-3 urte)**

Aranburuzabala, 1 • 943 71 31 58

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.



**eskoriatzako
udala**

A
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Edertasun Gida

'Barrutik zaintzea kanpotik zaintzea bezain garrantzitsua da azal polita edukitzeko'

Duela lau urte pasatxo, 1999ko irailean, Laura Santorcuatto eta Sole Martinezek L-10 ile-apaindegi eta estetika zentroa irekitzea erabaki zuten. Ordutik hona batera dihardute, Vanesa Gonzalez eta Maialen Morenoren laguntzaz.

JENDEA AUSARTAGOA DA

Laurak 13 urte daramatza jendeari ilea txukun ipintzen. Baina duela bost urte bere negozioa irekitzea erabaki eta horrela egin zuen. Solek, aldiz, Laurak baino bi urte gehiago daramatza estetika kontuetan sartuta, eta Aretxabaletara etorri aurretik Bergaran egiten zuen lan. Biak bidaialagun bihurtu ziren negozioen mundu honetan, gustuko duten lanbidean.

"Duela zenbait urte, egun jakin batzuetan prestatzen zen jendea kalera irteteko, eta orain, nahi duenean egiten du, diru gehiago dagoelako". Gizonak ere poliki-poliki lotsa galdu eta gauza arraroagoak egitera animatzen direla dio Laurak. Mota guztietako eskaerak egiten dizkiote ile-apaindegian: ilea askotariko koloreez tindatzea, ile luzatzeak... Oraindik orrazkera klasikoak eramaten diren arren, jendea ausartagoa dela eta hirietan ikusten dena Aretxabaletan ere aurki daitekeela esan digute. Gure bezeroak adin guztietakoak dira, eta helduek ere kolore berriak probatzen dituzte, esaterako. Laurak azaldu duenez, bakoitzaren ileak tratamendu bat eskatzen du eta norberak zer behar duen jakiteko ile-apaindegiko langileen aholkua



Soleri eta Laurari laguntzen aritzen dira Vanesa eta Maialen.

jarraitzea gomendatzen du. "Batziek nahikoa dute xanpu normala erabiltzeaz, beste batziek kosmetiko-geruza behar dute ilea hidratatzeko, adibidez".

Solek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu L-10 ile-apaindegian. Depilatzeak dira horietariko batzuk. Argizari bidezko depilatzea, elektrikoa... Jende ugari etortzen dela esaten du, eta ez emakumeak bakarrik. "Geroz eta gizon gehiago etortzen da. Lehen, kirolariak ziren gehienak, baina orain, denetik dago; ilerik gabe gusturago daude asko dira", esan digu estetizistak. Azalarentzako tratamenduak ere eskaintzen ditu, gorputz eta aurpegikoa; makillajea (bai ezkontza egunetarako, baita Aratusteetarako ere)...

AZALA TXUKUN EDUKI

Azala zaintzea garrantzitsua dela dio Solek. Oinarritzko zainketa beharrezkoa ikusten du, etxean egin daitekeena. "Toniko eta esne hidratatzailea egunero erabiltzea komeni dela uste dut, hori bai, bakoitzaren azalaren arabera", azaldu digu Solek. Baina ez da zaindu beharreko gauza bakarra. "Elkadura orekatua eramatea komeni da; izan ere, horrek ere azalean eragiten du, eta ur ugari edatea ona da. Bigarren urratsa aurpegirako eta gorputzerako eskaintzen ditugun tratamenduak jasotzea litzateke, eta urtaro aldaketa gertatzean egiten bada, hobeto. Eta noski, norberak etxean egin ditzakeen zainketak funtsezkoak dira, estetika zentroan jasota

Hile honetan:

Irudi
Ile apaindegia
Errekabarren 20 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 80 90

Gemes
estetika
Laser bidezko depilazioa
Makillajea
Ilargi plaza 1, Aretxabaleta. Tel. 943 79 99 18

L-10
ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA

TXIMAK
ILE APAINDEGI MISTOA
ETA ESTETIKA
Harriko Plaza 5. behea Tel. 943 79 83 64
ARETXABALETA

Kixkur
ILE APAINDEGIA
Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak
Loramendi 11. ARETXABALETA
Tel. 943 79 90 79

MAITE
ILE APAINDEGIA
Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 79 86 21 telefonora